

C.3 Liburu inprimatuen historian barnako bidaia: ondarearekin loturiko bisitaldia



Nafarroako Liburutegia

Alorra: Liburutegiak

Bisitaldi didaktiko bat egingen da Nafarroako Liburutegira, Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemako liburutegi nagusia eta Nafarroako ondare bibliografikoaren arduradun gorena den aldetik, liburutegi publikoen berezko egitekoak ondarearen kontserbazioaren arlokoekin bateratzen baititu.

Liburutegiaren eta gaur egun dituen funtsen historia laburki azalduko da, ondarearen arloan esleituak dituen eginkizunak nabarmenduz: "Nafarroako ondare bibliografikoa, filmografikoa, ikus-entzunezkoa eta digitala bildu, babestu eta ezagutaraztea", "Lege Gordailua kudeatzea" eta "Nafarroako Liburutegi Digitalaren (BiNaDi) prestaketa eta zabalkundea bultzatu eta koordinatzea".

Bisitaldiaren xede zehatza liburu inprimatuen bilakaerari buruzko saio didaktiko bat izanen da, liburuaren historiaren eta papereko inprimaketaren gaineko materialak eta lanik adierazgarrienak landuko direlarik.

Inprimatzeko euskarri materialari berari, inprimatzeko prozedurei (artisaia, linotipia, offseta eta inprimaketa digitala), irudiei (inizialak, grabatuak edo estanpazio teknikak) eta koadernaketari (liburugile koadernaketak edo koadernaketa artistikoak) erreparatuko zaie, bereziki.

Saio horren ostean, bisitariak Liburutegiko gordailuak ezagutzeko ibilbidea egingen dute, eta azalpen gehiago emanen diete funtsen jatorriari eta kontserbazio erei buruz.

Iraupena: ordu eta erdi, gutxi gorabehera

Helburuak:

- Gazteek ezagutu dezatela Nafarroako Liburutegiak ondarearen arloan betetzen duen eginkizuna.
- Jakintza zaintzearen eta transmititzearen garrantziaz jabeaztea.
- Liburuaren munduarekiko eta liburugintzarekiko jakin-nahia piztea.

Norentzat:

- DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa (jardueraren ezaugarri bereziak direla-eta, mugatu egin daiteke talde bakoitzeko parte-hartzaile kopurua)

Egunak:

- Urte guztian.

Prezioa:

- Doako programa.

Ikasmateriala:

- Bai

Antolatzailea:

- Nafarroako Liburutegia.

Eskabideak:

- Nafarroako Liburutegia.
Ondare Bibliografiko eta Filmografikoaren eta Lege Gordailuaren Bulegoa.
Nafarroako Liburutegiaren eta Zinematekaren eraikina
Antonio Pérez Goyena pasealekua 3, 31001 Iruña.

Telefonoak: 848 427782 - 848 427762